



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2007ko otsailaren 15a

10. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak hobetzeko neurriei buruzko uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legearen bitartez finantzatzen ziren eremu ez euskalduneko ikastolen finantzaketari buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Antsoingo Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2005eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (6. or.).
- Zizur Nagusiko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2005eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (10. or.).
- Burlatako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2005eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (14. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak hobetzeko neurriei buruzko uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legearen bitartez finantzatzen ziren eremu ez euskalduneko ikastolen finantzaketari buruzkoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak hobetzeko neurriei buruzko uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legearen bitartez finantzatzen ziren eremu ez euskalduneko ikastolen finantzaketari buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu dut. Proiektu hori 2006ko abenduaren 22ko 113. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

1. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

1. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

"2010eko abenduaren 31ra bitarteko" ordez, honakoa jartzea: "2011ko abuztuaren 31ra bitarteko."

Testua honela geldituko litzateke:

"1. Foru lege honen xedea da eremu ez euskalduneko ikastolentzako finantzaketa berezia arautzea, horiek baimendu ondoren eta 2006ko irailaren 1etik 2011ko abuztuaren 31ra bitarteko eperako gehienez ere. Ikastola horiek Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza hobetzeko neurriei buruzko uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legean oinarritutako finantzaketa izan dute orain arte."

Zioak: Ikastetxeen kontabilitatea eta funtzionamendua irailaren 1ean hasi eta abuztuaren 31n amaitzen da. Akordioa bost ikasturterako denez, datek horiek izan behar lukete.

2. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

"1. Foru lege honen xedea da (...) 2006ko irailaren 1etik 2011ko abuztuaren 31ra bitarteko eperako gehienez ere.

Zioak: Ikastetxeen kontabilitatea eta funtzionamendua irailaren 1ean hasi eta abuztuaren 31n amaitzen da. Akordioa bost ikasturterako denez, datek horiek izan behar lukete.

3. ZUZENKETA

ASKOTARIKO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

"1. Foru lege honen xedea da (...) 2006ko irailaren 1etik 2011ko abuztuaren 31ra bitarteko eperako gehienez ere.

Zioak: Ikastetxeen kontabilitatea eta funtzionamendua irailaren 1ean hasi eta abuztuaren 31n amaitzen da. Akordioa bost ikasturterako denez, datek horiek izan behar lukete.

2. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

4. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluko 2. idatz-zatiko 1. taulan beste lerro bat gehitzeko zuzenketa.

Taula honela geldituko litzateke:

1. taula

Urtea	Urteko gehieneko finantzaketa
2006	1.718.253,93
2007	1.798.724,07
2008	1.758.489,00
2009	1.758.489,00
2010	1.758.489,00
2011	1.172.326,00

Zioak: Aurreko zuzenketarekin bat. 8/12 dira 2010-2011 ikasturteko azken bi lauhilekoei dagozkienak.

5. ZUZENKETA

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluko ("Dirulaguntzen zenbatekoa") 2. idatz-zatiko 1. taulan beste lerro bat gehitzeko zuzenketa.

2011	1.172.326 €
------	-------------

Zioak: 8/12 dira 2010-2011 ikasturteko azken bi lauhilekoei dagozkienak. Halaber, 1. artikuluari aurkeztutako zuzenketa dugu oinarri.

6. ZUZENKETA

ASKOTARIKO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluko ("Dirulaguntzen zenbatekoa") 2. idatz-zatiko 1. taulan beste lerro bat gehitzeko zuzenketa.

2011	1.172.326 €
------	-------------

Zioak: 8/12 dira 2010-2011 ikasturteko azken bi lauhilekoei dagozkienak. Halaber, 1. artikuluari aurkeztutako zuzenketa dugu oinarri.

7. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aurreko taularen ondotik, 2. artikuluen 2. idatz-zatian, honako testua gehitzeko zuzenketa:

"Zenbateko horiek, urtero, Nafarroan izandako KPlaren arabera handituko dira."

Zioak: Bizitzaren kostuaren igoerak eta itunen berezko igoerak dirulaguntzaren gehienekoa gain-di dezakete 2 edo 3 urte barru. Hori litzateke itunaren bitzita eta ez hitzartutako bost urteak.

8. ZUZENKETA

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluko ("Dirulaguntzen zenbatekoa") 2. idatz-zatiko 1. taularen ondoren beste lerrokada bat gehitzeko zuzenketa. Hona:

"Zenbateko horiek, urtero, Nafarroan izandako KPlaren arabera handituko dira."

Zioak: Bizitzaren kostuaren igoerak eta itunen berezko igoerak dirulaguntzaren gehienekoa gain-di dezakete 2 edo 3 urte barru. Hori litzateke itunaren bitzita eta ez hitzartutako bost urteak.

9. ZUZENKETA

ASKOTARIKO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluko ("Dirulaguntzen zenbatekoa") 2. idatz-zatiko 1. taularen ondoren beste lerrokada bat gehitzeko zuzenketa. Hona:

"Zenbateko horiek, urtero, Nafarroan izandako KPlaren arabera handituko dira."

Zioak: Bizitzaren kostuaren igoerak eta itunen berezko igoerak dirulaguntzaren gehienekoa gain-di dezakete 2 edo 3 urte barru. Hori litzateke itunaren bitzita eta ez hitzartutako bost urteak.

10. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluko 4. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

4. idatz-zatia honela geldituko litzateke:

"4. Ikastolek jaso beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa hau izanen da: kontusail osotik urtean kobratutako itunak kenduta gelditzen dena."

Zioak: 4. idatz-zatian proposatutako kalkulua ez da zehatza; ikastetxeek, izan ere, ez dute inoiz moduluaren zenbatekoa osorik kobratzen (gehieneko muga da).

11. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluko ("Dirulaguntzen zenbatekoa") 4. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa:

"4. Ikastolek jaso beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa hau izanen da: kontusail osotik urtean kobratutako itunak kenduta gelditzen dena."

Zioak: 4. idatz-zatian proposatutako kalkulua ez da zehatza; ikastetxeek, izan ere, ez dute inoiz moduluaren zenbatekoa osorik kobratzen (gehieneko muga da).

12. ZUZENKETA

ASKOTARIKO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluko ("Dirulaguntzen zenbatekoa") 4. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa:

"4. Ikastolek jaso beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa hau izanen da: kontusail osotik urtean kobratutako itunak kenduta gelditzen dena."

Zioak: 4. idatz-zatian proposatutako kalkulua ez da zehatza; ikastetxeek, izan ere, ez dute inoiz moduluaren zenbatekoa osorik kobratzen (gehieneko muga da).

13. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bat, 10.a, gehitzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

"10. Ikastetxe horietako langileei antzinatasuna eta merezimenduak aitortzea, lan kontratuetan eta Gizarte Segurantzako agirietan oinarrituta."

Zioak: Ikastetxe horietako langileek ere pairatu dituzte alegaltasun egoera horren ondorioak. Ikastolak ez daudenez Departamentuaren Ikastetxeen Erregistroan, langileek ez dute antzinatasunagatiko punturik eta merezimendurik izaten deialdi ofizialetan.

14. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bat, 10.a, gehitzeko zuzenketa.

Ikastetxe horietako langileei antzinatasuna eta merezimenduak aitortzea hezkuntza administrazioak eskaintzen dituen lanpostuetan hautagai izatean, lan kontratuetan eta Gizarte Segurantzako agirietan oinarrituta.

Zioak: Ikastetxe horietako langileek ere pairatu dituzte alegaltasun egoera horren ondorioak.

Ikastolak ez daudenez Departamentuaren Ikastetxeen Erregistroan, langileek ez dute antzinatasunagatiko punturik eta merezimendurik izaten deialdi ofizialetan.

15. ZUZENKETA

ASKOTARIKO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Beste artikulu bat, 10.a, gehitzeko zuzenketa.

"10. artikulua. Ikastetxe horietako langileei antzinatasuna eta merezimenduak aitortzea hezkuntza administrazioak eskaintzen dituen lanpostuetan hautagai izatean, lan kontratuetan eta Gizarte Segurantzako agirietan oinarrituta."

Zioak: Ikastetxe horietako langileek ere pairatu dituzte alegaltasun egoera horren ondorioak. Ikastolak ez daudenez Departamentuaren Ikastetxeen Erregistroan, langileek ez dute antzinatasunagatiko punturik eta merezimendurik izaten deialdi ofizialetan.

XEDAPENEI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

16. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA -NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuari beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

"Xedapen gehigarria Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeko 5. artikuluko b) letra aldatzeko. Testu hau izanen luke:

b) Eremu mistoa, ondoko udalerriek osatua: Abartzuza, Agoiz, Antsoain, Aranguren, Artze, Atarrabia, Atetz, Barañain, Beriain, Berriobeiti, Berrio-

zar, Bidankoze, Bidaurreta, Burgi, Deierri, Eguesibar, Erronkari, Espartza, Etxarri, Etxauri, Ezkabarte, Ezkaroze, Galar, Garde, Gares, Gesalatz, Goñi, Gorza, Iruña, Isaba, Itza, Itzaltzu, Jaitz, Jaurrieta, Leotz, Lezaun, Lizarra, Lizoain, Noain-Elortzibar, Odieta, Olaibar, Olo, Oltza, Orkoiien, Orontze, Orotz-Betelu, Otsagabia, Puiu, Sartze, Txulapain,

Uharte, Untzue, Urzainki, Uztarroze, Zabaltza, Ziri-za, Zizur eta Zizur Nagusia.”

Zioak: Eremu mistoan sartzeko espresuki eskatu duten herriak eremu horretan sar daitezen, eta eremu mistoan sar daitezen, baita ere, herritarrik gehienak Hezkuntza Departamentuak Iruñerriari buruz eskatutako azterketa soziolinguistikoarekin bat datozen herriak.

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Antsoaingo Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2005eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urtarrilaren 29an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Antsoaingo Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2005eko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Antsoaingo Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2005eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

I. Sarrera (6. or.).

II. Helburua (7. or.).

III. Norainokoa (7. or.).

IV. Iritzia (7. or.).

IV.1. 2005eko aurrekontu bateratuaren likidazioari dagokionez (8. or.).

IV.2. 2005eko abenduaren 31ko ondare-egoe-raren agerpena (8. or.).

IV.3. Legezketasuna (8. or.).

IV.4. 2005eko abenduaren 31ko finantza-ego-era (8. or.).

IV.5. Informazio osagarria eta azalpen oha-rrak (8. or.).

IV.6. Gomendioen jarraipena (8. or.).

IV.7. Ondorio orokorra (8. or.).

V. Iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (8. or.).

V.1. Administrazio-kontratazioa. (8. or.).

V.2. Kudeaketari buruzko bestelako gomen-dioak. (9. or.).

V.3. Hirigintza (9. or.).

V.4. Gorabeherak (9. or.).

V.5. Patronatuak (9. or.).

Eranskina: 2005eko ekitaldiko kontuen oroitidazkia

Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta ondoko webgunean:

www.cfnavarra.es/camara.comptos).

I. SARRERA

Antsoaingo Udalak 9.862 biztanle ditu eta, bere erakunde autonomoekin batera, hauexek ditu zifra adierazgarrienak 2005eko abenduaren 31n:

Entitatea	Aitorturiko betebeharrak	Aitorturiko eskubideak	Langileak 2005-12-31n
Udala	8.823.494,6	10.145.824,62	66
Gazte-Berriak Kirol eta Kultura Patronatua	450.147,09	112.888,90	3
Euskara Sustatzeko Patronatua	82.293,05	27.755,09	1
Sexu Hezkuntza eta Famili Plangintzarako Patronatua	1,90	0	0
Guztira	9.355.936,64	10.286.468,61	70

Udalak ondoko mankomunitateetan hartzen du parte:

a) Iruñerriko Mankomunitatean, eta haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri hondakin solidoen kudeaketa eta tratamendukoak eta eskualdeko hiri garraiokoak.

b) Antsoain, Berriozar eta Berriobeitiko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean. Horren bidez emantzen zerbitzuak dira etxez etxeko laguntza, drogamenpekotasun-programa, abegi eta gizarte-orientazioa, haurtzaroa eta familia eta gizarteratzea eta lan munduan sartzea.

Etebizitzak eta Eraikinak Zaharberritzeko Bulegoan ere parte hartzen du.

II. HELBURUA

Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Antsoaingo Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2003ko ekitaldiko kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren fiskalizazioa egin dugu. Halaber, ekitaldi horretako gastuen eta dirusarreraren aurrekontuen betetzea ere fiskalizatu dugu.

Toki entitateari aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute: aipatutako legeak, Toki araubidearen oinarriak arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Nafarroako Administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuak, administrazio-kontratazioari eta hirigintza-kudeaketari buruzko araudiak eta Nafarroako toki entitateei oro har aplikatzekoa den gainontzeko araudiak.

Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak dira, zeinak Nafarroako toki administratziarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.

Txostenaren helburua da honako hauei buruzko gure iritzia adieraztea:

a) Antsoaingo Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2005eko ekitaldiko aurrekontuaren garapena eta betetzea.

b) 2005eko abenduaren 31ko ondare-egoeraren agerpena, aplikatzekoak diren kontabilitate-printzipioei jarraituz.

c) Jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari lotua egon ote den.

d) Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2005eko abenduaren 31ko finantza-egoera.

e) Antsoaingo Udalaren finantzen egoera-orri bateratuen informazio osagarria eta azalpen oharretan ageri diren datuen eta iruzkinen arrazoizkotasuna eta koherentzia.

f) Egin zuen azken fiskalizazio-txostenean, zeina 2004ko ekitaldiari buruzkoa baita, Comptos Ganbera honek eman zituen gomendioak noraino bete diren.

III. NORAINOKOA

Comptos Ganberak, bere jarduketa-programari jarraituz, Antsoaingo Udalaren eta haren menpeko erakunde autonomoen –Kirol eta Kultura Patronatua, “Gazte Berriak,” Euskara Sustatzeko Patronatua eta Sexu Hezkuntza eta Famili Plangintzako Patronatua– finantzen egoera-orri bateratuaren fiskalizazioa egin du. Honakoak aztertu ditugu: aurrekontu bateratuaren likidazioaren egoera-orria, aurrekontuen emaitza bateratua, 2005eko diruzaintzako gerakin bateratua eta 2005eko abenduaren 31ko egoeraren balantze bateratua, bai eta finantzen egoera-orri bateratu horien informazio osagarria eta azalpen oharrak ere

Udalak kontabilitate publikoari buruzko plan orokorra ezarrita dauka, eta horrekin kudeatzen da, halaber, erakunde autonomoen kontabilitatea; erakunde horiek organo-kode baten bidez identifikatzen dira.

Beraz, eginiko lanak hauxe izan du arretagai: dirusarrera eta gastuei buruzko kapitulu ekonomikoak eta ondare-masak berrikustea, antolamenduari, kontabilitateari eta barne-kontrolari dagozkion hainbat puntu aztertuz.

Lana egin dugu Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako fiskalizazio printzipioei eta arauari jarraituz eta aurreko urteetako lanetan agerian gelditu diren baldintzen eta arazoaren arabera beharrezkoak diren proba guztiak aplikatuz.

Txostenean daude, halaber, udalaren antolamendua, barne-kontrola, eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko beharrezkotzat jotzen ditugun iruzkin eta gomendioak.

Udaleko eta haren menpeko erakunde autonomoetako langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

IV. IRITZIA

Burururiko fiskalizazioaren barruan, Antsoaingo Udalaren eta haren erakunde autonomoen finan-

tzen egoera-orri bateratuak, 2005eko abenduaren 31n amaituriko ekitaldikoak, aztertu ditugu. Egoera-orri horiek udalaren ardurapean egin dira.

IV.1. 2005eko AURREKONTU BATERATUA-REN LIKIDAZIOARI DAGOKIONEZ

Erantsi dugun 2005eko aurrekontu bateratua-ren likidazioaren egoera-orriak eta oharrek behar bezala agertzen dute, garrantzizkoak diren alderdi guztiei dagokienez, ekitaldiko jarduera eta 2005eko abenduaren 31ko aurrekontu-egoera.

IV.2. 2005eko ABENDUAREN 31ko ONDARE-EGOERAREN AGERPENA

2005eko abenduaren 31ko egoera-balantze bateratuak eta oharrek behar bezala agertzen dute udalaren finantza eta ondare-egoera, salbu eta ondasunen (ibilgetua) inbentarioaren kasuan, gaurkoturik ez dagoelako –1995ekoa da–.

IV.3. LEGEZKOTASUNA

Oro har, udalaren jarduera ekonomiko-finantzaria legezkontasun-printzipioari jarraituz egin da.

IV.4. 2005eko ABENDUAREN 31ko FINANTZA-EGOERA

Hasierako aurrekontu bateratua 11 milioi eurokoa da, eta behin betikoa, 12,8 eurokoa. Gastuen betetze-maila % 73koa du, eta dirusarrerena, % 80koa.

2005eko ekitaldian behera egin du gastuen eta dirusarreraren betetzearen ehunekoak. Gastuek behera egin dute, batez ere, inbertsio errealean betetze maila % 54koa baino ez delako, hau da, ekitaldiko gastuen % 36. Inbertsio errealean beste-erentzetik heldu diren dirusarreraren betetze maila % 70koa da eta kapital transferentzia (urbanizazio kuotak) % 41ekoa; bi kapitulu horiek ekitaldiko dirusarreraren % 27 egiten dute.

Ekitaldia ixtean aurrekontuko emaitza doitu 954.000 euroko superabita zen. 2005eko abenduaren 31n, zorra 5,743 milioi eurokoa zen. Finantzakarga txikia da, % 3koa; aurrezpen garbia % 20,33koa, eta diruzaintzako gerakin bateratua, 3,096 milioi eurokoa.

IV.5. INFORMAZIO OSAGARRIA ETA AZALPEN OHARRAK

Egindako azterketaren bidez ondorioztatu dugu finantzen egoera-orri bateratuen informazio osagarria eta azalpen oharretan haiek ongi interpretatu

eta ulertzeko beharrezkoa den informazioa dagoela.

IV.6. GOMENDIOEN JARRAIPENA

Oro har, esan daiteke 2004ko ekitaldiari buruzko txosteneko administrazio- eta kontabilitate-izae-rako gomendio nagusiak aintzat hartuak izan direla, eta horiek behar bezala aplikatzeko neurri egokiak hartzen ari direla. Hala ere, oraindik indardun diren gomendioak txosten honetako V. puntuan jasota daude.

IV.7. ONDORIO OROKORRA

Laburtuz, eta ondorio orokor gisa, esan genezake udalak egokiro kudeatzen dituela bere aurrekontuak.

Hala ere, prozedurak hobetearren, behar diren gomendioak biltzen dira hurrengo epigrafean.

V. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

V.1. ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA.

Atal honetan xeheturik agertuko ditugu, alde batetik, hornidurak erosi eta zerbitzuak emateari buruzko alderdiak eta, bestalde, inbertsioak.

V.1.1. Hornidurak erosi eta zerbitzuak ematea

Kontratazio espediente haiek aztertu ditugu:

- Lorategien zerbitzurako traktore bat erostea (26.110 euro).
- Igerileku ludiko-termaleko hondoak garbitzeko erostea (10.969 euro).
- Igerilekuetako sarrerak kontrolatzeko zerbitzua eta Idaki 2005eko abenduaren 31 arte kontratatzea (144.206 euro).
- Ikastetxe publikoa garbitzeko zerbitzua kontratatzea (84.959 euro).
- Kirol instalazioak garbitzeko kontratua zabaltea (169.738 euro).

Egindako azterketaren arabera, indarreko araudia behar bezala bete da, eta zuzen egin da espedienteen kontabilitate- eta administrazio-jarraipena.

V.1.2 Inbertsioak

2005eko ekitaldian hiru esleipen garrantzitsu egin dira inbertsioen arloan: U.6 unitatea urbanizatzea (1,6 milioi euro), futbol zelaia handitzea eta belar artifiziala jartzea (1,3 milioi euro), eta Mendi-

kale kaleko espaloiak handitzea eta aparkatzeko eremua prestatzea. Lehenengo bien kasuan, zerbitzuak kontratatzeko espedienteak aztertu ditugu, eta behar bezala daude.

2005ean eginiko inbertsioak aurreko ekitaldian esleitutako obrei –aurreko ekitaldian aztertu ziren horiek, eta ez zen gorabehera adierazgarriak aurkitu– eta ekitaldi honetan esleitutakoei (U.6 unitatearen urbanizazioa eta futbol zelaia handitzea) dagozkie.

Egindako azterketaren arabera, indarreko araudia behar bezala bete da, eta zuzen egin da espedienteen kontabilitate- eta administrazio-jarraiapena.

V.2. KUDEAKETARI BURUZKO BESTELAKO GOMENDIOAK.

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, gure aburuz udalak bere egin behar dituen gomendio nagusiak, bere antolaketa-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetzeko.

V.2.1. Antolaketa orokorra

- *Barne araubideari buruzko erregelamendua egitea, horren bidez udaleko organo exekutiboen eskumenak definitu eta euren artean banatzeko eta erakunde autonomoekiko harremanak arautzeko.*

V.2.2 Inbentarioa-ibilgetua

- *Udal ondasunak eskriturretan jaso eta erregistratzeko prozesua osatzea, eta udal inbentarioaren etengabeko gaurkotzea eta hura kontabilitatearekin konektatua egotea lortzeko prozedurak taxutu eta aplikatzea.*

- *Ibilgetuko dokumentazioa artxibatze eta altak nahiz bajak kontabilizatzeko prozedurak definitu eta ezartzea, kontu horiei aplikatzekoak diren kontabilitate-irizpideei jarraituz. Ibilgetua osatzen duten kontabilitate-saldoak aztertu eta garbitzea, udalaren ondasunak ongi isla ditzaten.*

V.2.3 Tributu bidezko dirusarrerak, tasak eta prezio publikoak

- *Adieraztea zein prozedura erabili diren dirusarreraren kudeaketaren datuak eta datu horiek beren kontabilitate-erregistroekin eta dirubiltakoeekin bat etorraztetik lortutakoak egiaztatzeke, horrela kontabilitate- eta aurrekontu-informazioaren segurtasun eta fidagarritasun handiagoak lortzeko.*

- *Tasa eta prezio publikoekin ordaintzen diren kostuei buruzko azterketak aldizka egitea.*

V.3. HIRIGINTZA

2003ko martxoaren 28an hartu zuen indarra Lurraldearen antolamendu eta hirigintzari buruzko Foru Lege berriak, abenduaren 20koak, zeinaren bidez ordeztzen baita uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legea. Hasiera batean, Antsoingo Udalak, 2005eko ekitaldian, hiri antolamenduari buruzko lege berrian ezarritako lege-betekizunak betetzen ditu; halere, arian-arian aplikatzekoa denez (3 urte), etorkizunean egiten dituen inbertsio proiektuetan kontuan hartu beharko du.

Udalak aurkeztutako txostenaren IV. atalean hirigintza-planeamenduko garapena zehazten da. Halaber, eraiki diren babes ofizialeko etxebizitzetako buruzko informazioa eta azken ekitaldian ondarea besterentzeagatik eta hirigintza-aprobetxamenduetatik lortutako dirusarrerari buruzko kontabilitate informazioa azaltzen da.

V.4. GORABEHERAK

Abenduaren 31n ebatzi gabeko errekurtsio batzuk daude eta horiek, udalarentzat, gutxi gorabehera 1,5 milioi euro egiten dute.

Bestalde, aipatu behar dira 2005ean sindikatu-ekin sinatutako bi akordioek –funtzionarioen lan baldintzei buruzkoa eta lan-kontratudunek akordio horri atxikitzeari buruzkoa– eragin ditzaketan betebeharrak.

V.5. PATRONATUAK

Oro har, antzeman dugu patronatuek zenbateko urriko aurrekontuak kudeatzen dituztela. Hor-taz, kontuan izanda udalak aurrekontu bakarra kudeatzen duela eta hartan kode organiko baten bitartez bereizten dela patronatuetako bakoitza, honakoa gomendatzen dugu:

Horiek udal zerbitzu deszentralizatu bihurtzeko aukera aztertzea, haien kudeaketaren eraginkortasuna, efizientzia eta kontrola aintzat hartuz.

Francisco Javier Sesma Masa auditore jauna arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako tramiteak bete ondoren.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 10ean

Lehendakaria, Luis Muñoz Garde

Zizur Nagusiko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2005eko ekitaldiko, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urtarrilaren 29an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Zizur Nagusiko Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2005eko ekitaldiko, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Zizur Nagusiko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2005eko ekitaldiko, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (10. or.).
- II. Helburua (11. or.).
- III. Norainokoa (11. or.).
- IV. Iritzia (11. or.).
 - IV.1. 2005eko aurrekontu bateratuaren likidazioari dagokionez. (11. or.).
 - IV.2. 2005eko abenduaren 31ko ondare-egoe-raren agerpena (12. or.).
 - IV.3. Legezkotasuna (12. or.).

IV.4. 2005eko abenduaren 31ko finantza-egoera. (12. or.).

IV.5. Informazio osagarria eta azalpen oharrak (12. or.).

IV.6. Gomendioen jarraipena (12. or.).

IV.7. Ondorio orokorra (12. or.).

V. Iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (12. or.).

V.1. Administrazio-kontratazioa. (12. or.).

V.2. Kudeaketari buruzko bestelako gomendioak. (13. or.).

V.3. Hirigintza (13. or.).

Eranskina: 2005eko ekitaldiko kontuen oroitidazkia.

Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokoretako bulegoetan eta ondoko webgunean: www.cfnavarra.es/camara.comptos).

I. SARRERA

Zizur Nagusiko Udalak 13.052 biztanle ditu, eta, bere erakunde autonomoekin batera, hauexek ditu zifra adierazgarrienak 2005eko abenduaren 31n:

Entitatea	Aitorturiko betebeharrak	Aitorturiko eskubideak	Langileak 2005-12-31n
Udala	11.177.806,70	17.196.230,22	96
Musika Eskolako Patronatua	353.285,36	346.796,30	13
Kultur Patronatua	409.285,29	425.068,68	0
Ardoi Kirol Patronatua	499.531,73	531.516,96	0
Guztira	12.439.909,08	18.499.612,16	109

Udala Iruñerriko Mankomunitatean sarturik dago, eta haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri hondakin solidoen kudeaketa eta tratamendukoak eta bidaiari-garraio publikoarenak.

II. HELBURUA

Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Zizur Nagusiko Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2005eko ekitaldiko kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren fiskalizazioa egin dugu. Halaber, ekitaldi horretako gastuen eta dirusarreraren aurrekontuen betetzea ere fiskalizatu dugu.

Toki entitateari aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute: aipatutako legeak, Toki araubidearen oinarriak arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuak, administrazio-kontratazioari eta hirigintza-kudeaketari buruzko araudiak eta Nafarroako toki entitatei oro har aplikatzekoa den gainontzeko araudiak.

Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak dira, zeinak Nafarroako toki administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.

Txostenaren helburua da honako hauei buruzko gure iritzia adieraztea:

- Zizur Nagusiko Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2005eko ekitaldiko aurrekontuaren garapena eta betetzea.
- 2005eko abenduaren 31ko ondare-egoeraren agerpena, aplikatzekoak zaizkion kontabilitate-printzipioei jarraikiz.
- Jarduera ekonomiko eta finantzarioa legezkotasun printzipioari egokitzen ote zaion.
- Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2005eko abenduaren 31ko finantza-egoera.
- Zizur Nagusiko Udalaren finantzen egoera-orri bateratuen informazio osagarrian eta azalpen oharretan ageri diren datuen eta iruzkinen arrazoizkotasuna eta koherentzia.
- Azken fiskalizazio-txostenean, zeina 2004ko ekitaldiari buruzkoa baita, Comptos Ganberak eman zituen gomendioak noraino bete diren.

III. NORAINOKOA

Bere jarduketa-programari jarraituz, Comptos Ganberak Zizur Nagusiko Udalaren (hemendik aurrera, udala) eta haren erakunde autonomoen –Musika Eskolako Patronatua, Kultur Patronatua eta Ardoi Kirol Patronatua– fiskalizazioa egin du. Fiskalizazioan honakoak aztertu ditugu: aurrekontu bateratuaren likidazioaren egoera-orria, aurrekontuaren emaitza bateratua, 2005eko diruzaintzako gerakin bateratua eta 2005eko abenduaren 31ko egoeraren balantze bateratua, bai eta finantzen egoera-orri bateratu horien informazio osagarria eta azalpen oharrek ere.

Udalak kontabilitate publikoari buruzko plan orokorra ezarrita dauka. Erakunde autonomoek badute kontabilitate orokorra ere, udalean ezarritako ereduaren aplikazio sinplifikatu bati esker.

Beraz, eginiko lanak haxe izan du arretagai: dirusarrera eta gastuei buruzko kapitulu ekonomikoak eta ondare-masak berrikustea, eta antolamenduari, kontabilitateari eta barne-kontrolari dagozkion hainbat puntu aztertzea.

Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoen Koordinazio Batzardeak onetsiriko fiskalizazio printzipio eta arauak jarraituz egin da azterketa. Beharrezkotzat jo ditugun proba guztiak aplikatu ditugu, aurreko urteetako lanetan agerian gelditu diren egoera eta arazoak kontuan hartuta.

Txostenean jaso dira, halaber, udalaren antolamendua, barne-kontrola, eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko beharrezkotzat jotzen ditugun iruzkin eta gomendioak.

Azterketa lana 2006ko uztailaren egin dugu.

Udaleko eta haren menpeko erakunde autonomoetako langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

IV. IRITZIA

Burururiko fiskalizazioaren barruan, Zizur Nagusiko Udalaren eta haren erakunde autonomoen finantzen egoera-orri bateratuak, 2005eko abenduaren 31n amaituriko ekitaldikoak, aztertu ditugu. Egoera-orri horiek udalaren ardurapean egin dira.

Eginiko azterketan oinarrituz, hona gure iritzia:

IV.1. 2005eko AURREKONTU BATERATUAREN LIKIDAZIOARI DAGOKIONEZ.

Erantsi dugun 2005eko aurrekontu bateratuaren likidazioaren egoera-orriak eta oharrek behar bezala agertzen dute, garrantzizkoak diren alderdi

guztiei dagokienez, ekitaldiko jarduera eta 2005eko abenduaren 31ko aurrekontu-egoera.

IV.2. 2005eko ABENDUAREN 31ko ONDARE-EGOERAREN AGERPENA

Erantsirik dagoen 2005eko abenduaren 31ko egoera-balantze bateratuak eta oharrek behar bezala agertzen dute udalaren finantza eta ondare-egoera, salbu eta ondasunen inbentarioaren kasuan (ibilgetua), gaurkoturik ez dagoelako.

IV.3. LEGEZKOTASUNA

Oro har, udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari jarraituz egin da.

IV.4. 2005eko ABENDUAREN 31ko FINANTZA-EGOERA.

Hasierako aurrekontu bateratua 14,41 milioi eurokoa da, eta behin betikoa, 16,98 milioi eurokoa. Gastuen betetze-maila % 69,59koa da, eta dirusarrerena, % 105,26koa.

2005eko ekitaldian behera egin du gastuen betetzearen ehunekoak, eta gora, berriz, dirusarrerena. Azken horien artean, zuzeneko zergen betetzea % 102koa izan zen, eta zeharkakoena % 60koa; bi kapitulu horiek ekitaldiko dirusarrerena % 13 egiten dute. Baliabide bateratuen % 75 transferentzietatik eta bestelako kapital dirusarreretatik dator; horietatik zati handi bat Ardoi izeneko sektorea urbanizatzeari dagokio (esaterako, jabeek ordaindutako kuotak). Gastuen betetze maila % 69koa da.

Aurrekontuaren emaitza doituari 0,4 milioi euroko defizita ageri da. 2005eko abenduaren 31n ez dago epe luzeko zorrik, eta ekitaldi horretarako aurrekontuan jasota zegoen mailegua ez da izenpetu. Aurrezki garbi negatibo bateratua % 0,29koa da, eta diruzaintzako gerakin bateratua 9,06 milioi eurokoa izan da.

Zizur Nagusiko Udalak eta bere erakunde autonomoek finantza-egoera saneatua erakusten dute 2005eko abenduaren 31n. Ezaugarri gisa ditu ia zorpetzerik eza, aurrezki garbi negatiboa –aurreko urteetakoa baino urriagoa–, eta biztanle bakoitzeko 331,26 euroko tributu bidezko dirusarrerak (presio fiskala).

Hala ere, nabarmendu behar da zorpetze-muga jaisten joan dela, eta horrek adierazten du udalak urtero aurrezki garbi gutxiago duela etorkizunean eginen diren inbertsioak finantzatzeko.

IV.5. INFORMAZIO OSAGARRIA ETA AZALPEN OHARRAK

Egindako azterketaren bidez ondorioztatu dugu finantzen egoera-orri bateratuen informazio osagarri eta azalpen oharretan haiek ongi interpretatu eta ulertzeko beharrezkoa den informazioa dagoela.

IV.6. GOMENDIOEN JARRAIPENA

Oro har, esan daiteke 2004ko ekitaldiari buruzko txosteneko administrazio- eta kontabilitate-izae-rako gomendio nagusiak aintzat hartuak izan direla, eta horiek behar bezala aplikatzeko neurri egokiak hartzen ari direla. Hala ere, oraindik indardun diren gomendioak txosten honetako V. puntuan jasota daude.

IV.7. ONDORIO OROKORRA

Laburtuz, eta ondorio orokor gisa, esan genezake udalak egokiro kudeatzen dituela bere aurrekontuak.

Hala ere, prozedurak hobetearren, behar diren gomendioak biltzen dira hurrengo epigrafean.

V. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

V.1. ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA.

Atal honetan xeheaturik agertuko ditugu, alde batetik, hornidurak erosi eta zerbitzuak emateari buruzko alderdiak eta, bestalde, inbertsioak.

V.1.1. Hornidurak erosi eta zerbitzuak ematea

Kontratazio espediente hauek aztertu ditugu:

- Lorezaintzako materialaz hornitzeko kontratazioa(31.359 euro).
- Gazteentzako lokalaren laguntza-kontratua (101.696 euro)
- Ludotekaren laguntza-kontratua (42.340 euro)

Comptos Ganbera honen gomendioak betez, erosketen kudeaketarako prozedura normalizatua aplikatzen du udalak.

Egindako azterketaren arabera, indarreko araudia behar bezala bete da, eta zuzen egin da espedienteen kontabilitate- eta administrazio-jarraipena.

V.1.2 Inbertsioak

2005eko ekitaldian inbertsioen arloan aztertu diren esleipen-espedienteak honakoak dira:

- Ardoi U-1 sektorea urbanizatzeko obra-kontratua (35,5 milioi euro).
- Belar artifizialeko futbol zelaia egiteko obra-kontratua (2,24 milioi euro).

2005an eginiko inbertsioak belar artifizialeko futbol zelaiari dagozkie, gehienbat.

Aztertutako espedienteek ekitaldian kapitulu honetan izandako betebeharrak guztiak hartzen dituzte.

Egindako azterketaren arabera, indarreko araudia behar bezala bete da, eta zuzen egin da espedienteen kontabilitate- eta administrazio-jarraitzeak.

V.2. KUDEAKETARI BURUZKO BESTELAKO GOMENDIOAK.

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, gure aburuz udalak bere egin behar dituen gomendio nagusiak, bere antolaketa-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetzeko.

V.2.1. Antolaketa orokorra

- *Barne araubideari buruzko erregelamendua egitea, horren bidez udaleko organo exekutiboaren eskumenak definitu eta euren artean banatzeko eta erakunde autonomoekiko harremanak arautzeko.*

V.2.2 Inbentarioa-ibilgetua

- *Udal ondasunen eskrituratze eta erregistratze prozesua osatzea. Udalaren inbentarioa etengabe gaurkotzea eta kontabilitatearekin lotua egotea ahalbidetuko duten prozedurak taxutu eta aplikatzea.*

- *Altak eta bajak kontabilizatzeko eta ibilgetuaren dokumentazioa artxibatzeko prozedurak finkatu eta ezartzea, kontu horiei aplikatu behar zaizkien kontabilitate irizpideei jarraituz. Ibilgetua osatzen duten kontabilitate-saldoak aztertu eta garbitzea, Udalaren ondasunak ongi isla ditzaten.*

V.2.3. Ibilgetu ez-materialeko altak

- *Ibilgetu ez-materialeko altetarako, legearekin bat datorren irizpide bat ezarri behar da, gastutzat hartu beharreko proiektuak aktibatze modurik ematen ez duena.*

V.2.4. Alderdi orokorrak

- *Nominen aplikazioa kontabilitate sistemarekin konektatzea.*

V.2.5. Patronatuak

- *Kultura eta kirol patronatuak udalaren zerbitzu deszentralizatu bihurtzeko aukera aztertzea, ez baitute ez instalazio ez langile berekirik.*

- *Kirol Patronatuari dagokionez, funts publikoetatik datozen transferentzia batzuk, kirol ataletako arduradunek modu pribatuan kudeatzen dituzte. Egoera hori arautzea gomendatzen dugu.*

V.3. HIRIGINTZA

2003ko martxoaren 28an hartu zuen indarra Lurraldearen antolamendu eta hirigintzari buruzko Foru Lege berriak, abenduaren 20koak, zeinaren bidez ordeztzen baita uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legea. Printzipioz, Zizurko Udalak, 2005eko ekitaldian, hiri antolamenduari buruzko lege berriaren ezarritako lege-betekizunak betetzen ditu; halere, arian-arian aplikatzekoa denez (3 urte), etorkizunean egiten dituen inbertsio proiektuetan kontuan hartu beharko du.

Udalak aurkeztutako txostenaren 7-II atalean udalaren hirigintza planaren garapena eta ekitaldian emandako lizentzien xehetasun bat zehazten dira.

Francisco Javier Sesma Masa auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

Burlatako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2005eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko otsailaren 5ean eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Burlatako Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2005eko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2007ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Burlatako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2005eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (14. or.).
- II. Helburua (15. or.).
- III. Norainokoa eta mugak (15. or.).
- IV. Iritzia (15. or.).
 - IV.1. 2005eko aurrekontu bateratuaren likidazioari dagokionez (15. or.).
 - IV.2. 2005eko abenduaren 31ko ondare-egoe-raren agerpena (16. or.).
 - IV.3. Legezketasuna (16. or.).
 - IV.4. 2005eko abenduaren 31ko finantza-egoera. (16. or.).

IV.5. Informazio osagarria eta azalpen ohar-rak (16. or.).

IV.6. 2004ko txosteneko gomendioen jarraipe-na (16. or.).

IV.7. Ondorio orokorra (16. or.).

V. Iruzkina, ondorioak eta gomendioak (16. or.).

V.1. Administrazio-kontratazioa (16. or.).

V.2. Kudeaketari buruzko bestelako gomen-dioak. (17. or.).

V.3. Hirigintza (18. or.).

V.4. Burlatako Udal Hirigintza Sozietatea, S.L. (18. or.).

Eranskina: 2005eko ekitaldiko kontuen oroitidazkia

Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Legebiltzarreko Zerbitzu Oro-korretako bulegoetan eta ondoko webgu-nean:

www.cfnavarra.es/camara.comptos.

I. SARRERA

Burlatako Udalak 18.316 biztanle ditu eta, bere erakunde autonomoekin batera, hauexek ditu zifra adierazgarrienak 2005eko abenduaren 31n:

Entitatea	Aitorturiko betebeharrak	Aitorturiko eskubideak	Langileak, 2005-12-31n
Udala	10.299.311,27	10.940.654,46	185
Kirol Patronatua	1.814.045,00	1.331.352,36	30
Kultur Patronatua	584.995,26	82.962,28	6
Musika Patronatua	693.723,60	475.217,86	29
Guztira	13.392.075,13	12.830.186,96	250

Udala Iruñerriko Mankomunitatean sarturik dago, eta haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri hondakin solidoen kudeaketa- eta tratamendu-zerbitzuak eta eskualdeko hiri-garraiokoak.

II. HELBURUA

Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, fiskalizatu egin ditugu bai Burlatako Udaleko kudeaketa ekonomiko-finantzarioa bai udal horren nahiz haren menpeko erakunde autonomoen 2005eko ekitaldiko gastu eta dirusarreraren aurrekontuen betetzea.

Toki entitateari aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute: aipatutako legeek, Toki araubidearen oinarriak arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Nafarroako Administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuak, administrazio-kontratazioari eta hirigintza-kudeaketari buruzko araudiak eta Nafarroako toki entitateei oro har aplikatzekoa den gainontzeko araudiak.

Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak dira, zeinak Nafarroako toki administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.

Txostenaren helburua da honako hauei buruzko gure iritzia adieraztea:

- Burlatako Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2005eko ekitaldiko aurrekontuaren garapena eta betetzea.
- 2005eko abenduaren 31ko ondare-egoeraren agerpena, aplikatzekoak zaizkion kontabilitate-printzipioei jarraikiz.
- Jarduera ekonomiko eta finantzarioa legeztatun printzipioari egokitzen ote zaion.
- Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2005eko abenduaren 31ko finantza-egoera.
- Burlatako Udalaren finantzen egoera-orri bateratuen informazio osagarrian eta azalpen oharretan ageri diren datuen eta iruzkinen arrazoizotasuna eta koherentzia.
- Azken fiskalizazio-txostenean, zeina 2004ko ekitaldiari buruzkoa baita, Comptos Ganberak eman zituen gomendioak noraino bete diren.

III. NORAINOKOA ETA MUGAK

Bere jarduketa-programari jarraituz, Comptos Ganberak Zizur Nagusiko Udalaren (hemendik aurrera, udala) eta haren erakunde autonomoen –Kirol Patronatua, Kultur Patronatua eta Musika Patronatua– fiskalizazioa egin du. Honakoak azertu ditugu: aurrekontu bateratuaren likidazioaren egoera-orria, aurrekontuen emaitza bateratua, 2005eko diruzaintzako gerakin bateratua eta 2005eko abenduaren 31ko egoeraren balantze bateratua, bai eta finantzen egoera-orri bateratu horien informazio osagarria eta azalpen oharrak ere. Udalak Kontabilitate Publikoari buruzko Plan Orokorra ezarrita dauka. Erakunde autonomoek ere badute kontabilitate orokorra, udalean ezarritako ereduaren aplikazio sinplifikatu bati esker.

Beraz, eginiko lanak haxe izan du arretagai: dirusarrera eta gastuei buruzko atal ekonomikoak eta ondare-masak berrikustea, antolamenduari, kontabilitateari eta barne-kontrolari dagozkion hainbat puntu aztertuz.

Lana egin dugu Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako fiskalizazio printzipioei eta arauari jarraituz eta aurreko urteetako lanetan agerian gelditu diren baldintzen eta arazoen arabera beharrezkoak diren proba guztiak aplikatuz.

Txostenean daude, halaber, udalaren antolamendua, barne-kontrola, eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko beharrezkotzat jotzen ditugun iruzkin eta gomendioak.

Udaleko eta haren menpeko erakunde autonomotako langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

IV. IRITZIA

Burururiko fiskalizazioaren barruan, Burlatako Udalaren eta haren erakunde autonomoen finantzen egoera-orri bateratuak aztertu ditugu, 2005eko abenduaren 31n amaituriko urte osoko ekitaldikoak, zeinak udalaren ardurapean egin baitira.

Eginiko azterketan oinarrituz, hona gure iritzia:

IV.1. 2005eko AURREKONTU BATERATUAREN LIKIDAZIOARI DAGOKIONEZ

Erantsi dugun 2005eko aurrekontu bateratuaren likidazioaren egoera-orriak eta oharrek behar bezala agertzen dute, garrantzizkoak diren alderdi guztiei dagokienez, ekitaldiko jarduera eta 2005eko abenduaren 31ko aurrekontu-egoera.

IV.2. 2005eko ABENDUAREN 31ko ONDARE-EGOERAREN AGERPENA

Erantsirik dagoen 2005eko abenduaren 31ko egoera-balantze bateratuak eta oharrek behar bezala agertzen dute udalaren finantza eta ondare-egoera, salbu eta ondasunen (ibilgetua) inbentarioaren kasuan, gaurkoturik ez dagoelako –1995ekoa da–.

IV.3. LEGEZKOTASUNA

Oro har, udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari jarraituz egin da.

IV.4. 2005eko ABENDUAREN 31ko FINANTZA-EGOERA.

Hasierako aurrekontu bateratua 14,7 milioi eurokoa da, eta behin betikoa, 22 milioi eurokoa. Gastuen betetze-maila % 61ekoa du, eta dirusarrerena, % 58koa.

2005eko ekitaldian behera egin du gastuen betetzearen ehunekoak, bai eta dirusarrerena ere. Azken horien artean, zuzeneko zergen betetzea % 94koa izan zen, eta zeharkakoena % 82ekoa; bi kapitulu horiek ekitaldiko dirusarrerena % 30 egiten dute. Baliabide bateratuen % 50 transferentzietatik datoz. Gastuei dagokienez, inbertsioen kapituluaren betetze maila txikia nabarmendu behar da: % 9,40.

Ekitaldia ixtean lortutako aurrekontuko emaitza bateratu doitua 0,5 milioi eurokoa zen.

2005eko abenduaren 31n, zorra 7,2 milioi eurokoa zen –aurreko ekitaldian 8,3 milioi eurokoa izan zen– eta ekitaldi horretan zehar ez da mailegu berririk sinatu. Zorpetze-maila % 10,4koa da, eta muga, berriz, % 9,7koa; beraz, zorpetze-ahalmena gainditu da. Diruzaintzako gerakin bateratua 1,7 milioi eurokoa da; halere, gastu orokorretarako gerakina negatiboa da, milioi bat eurokoa.

Finantzen ikuspegitik, udalak gaur egun zor bolumen handia agertzen du, eta oso zalantzazkoa da udalak zor horri aurre egiteko baliabideak sortzeko daukan gaitasuna.

IV.5. INFORMAZIO OSAGARRIA ETA AZALPEN OHARRAK

Egindako azterketaren bidez ondorioztatu dugu finantzen egoera-orri bateratuen informazio osagarria eta azalpen oharretan haiek ongi interpretatu eta ulertzeko beharrezkoa den informazioa dagoela.

IV.6. 2004ko TXOSTENEN GOMENDIOEN JARRAIPENA

Oro har, 2004ko ekitaldiari buruzko txosteneko administrazio- eta kontabilitate-izaerako gomendio nagusiak aintzat hartuak izan dira, eta horiek behar bezala aplikatzeko neurri egokiak hartzen ari dira. Hala ere, oraindik indardun diren gomendioak txosten honetako V. puntuan jasota daude.

IV.7. ONDORIO OROKORRA

Laburtuz, eta ondorio nagusi gisa, udalak modu egokian kudeatzen ditu bere aurrekontuak. Hala ere, haren finantza-egoerak zor, finantza-gastu eta gastu arrunteko bolumen handia du bereizgarri; horregatik, honela jokatu beharko du:

- *Finantza bideragarritasunari buruzko plan bat egin behar du hurrengo ekitaldietarako. Hala-ber, gastu arrunta kontrolatu eta udalean aplikatzen den zerga-presioa aztertu beharko ditu, eta zorpetze-muga gainditzea ekidin.*

- *Aurrekontuaren kudeaketaren barne kontroleko mekanismoak indartu eta osatu behar dira, egindako eragiketak ziurtatzeko eta bermatzeko; batez ere, saldoak berdinkatzeko eta berraztertze-ko arloari, kontabilitate printzipioei eta inbentarioak eguneratzeari dagokienez.*

- *Erakunde autonomoek dagokienez, horien estatutuak osatu eta gaurkotu egin behar dira, haien benetako autonomia-maila agertzera eman ez eta udalak haien jardueraren gain erabiltzen dituen kontrol- eta zaintza-mekanismoak erakutsiz.*

- *Azkenik, Kultura Patronatua deszentralizaturiko udal zerbitzu bilakatzea aztertu beharreko gai bat da, kudeatzen dituen baliabideen ehuneko 90 baino gehiago udalaren beraren ekarpena baitira.*

V. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

V.1. ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA

Atal honetan xeheki agertuko ditugu, alde batetik, hornidurak erosi eta zerbitzuak emateari buruzko alderdiak eta, bestalde, obrak.

V.1.1. Hornidurak erosi eta zerbitzuak ematea

Kontratazio espediente hauek aztertu ditugu:

- Belarra mozteko traktore bat erostea (41.433 €).

- Jubilatuen udal elkarteko taberna kudeatzeko kontratazioa (7.800 euro).

- Jaietan bideetako garbiketa egiteko laguntza kontratatzea (12.681 euro).

- Argiteria berritzeko proiektua idazteko laguntza kontratatzea (27.492 euro).

Comptos Ganberaren gomendioei jarraituz, erosketen kudeaketarako prozedura normalizatu bat aplikatzen da; hala ere, eginiko lagin-hartzearen ondoren, honako gomendio hau azpimarratu nahi dugu:

- Sortzapenaren printzipioa modu egokian egozte eta aplikatzea erregistraturiko gastu guztietan.

V.1.2. Inbertsioak

2005eko ekitaldian inbertsioen arloko esleipen garrantzitsuenak honakoak izan dira:

- Udaletxea eraikitzea (2.951.962,67 euro).
- Argiteria berritzea (284.136,48 euro).

Ekitaldian esleitutako kontratazio espedienteak, arestian aipatutakoak, berrikusi dira, baita ekitaldian esleitu diren eta horren adierazgarriak ez diren ondoko hauek ere:

- Feria-esparruko banaketa-sarea instalatzea (51.029 euro).
- Soto aparkalekua eraikitzea (102.367 euro).
- Beisbol zelaia berritzea (62.990 €).

Eginiko berrazterketan oinarrituz, hauxe gomendatzen dugu: espedienteetan dokumentazio guztiaren artxibatzea era egokian osatzea.

Horri buruz esan behar dugu ezen, Burlatako Udalari eginiko fiskalizazioetan zehar, hobekuntza antzeman dugula adjudikazio prozeduren gaian, bai eta espedienteak betetzean ere.

V.2. KUDEAKETARI BURUZKO BESTELAKO GOMENDIOAK.

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, gure aburuz udalak bere egin behar dituen gomendio nagusiak, bere antolaketa-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetzeko.

Kasu batzuetan, gomendioak 2006ko ekitaldian ezartzen ari dira.

V.2.1. Antolaketa orokorra

- Barne araubideari buruzko erregelamendua egitea; horren bidez, udaleko organo exekutiboen eskumenak definitu eta euren artean banatzeko eta erakunde autonomoekiko harremanak arautzeko. Udalak eta udal patronatuek bereganatu behar

dituzten gastuak eta dirusarrerak argitu eta zehaztea.

- Oinarrizko kudeaketa-prozedurak idatziz jaretzea, eta exekuzio-faseetarako arduradunak identifikatu eta esleitzea.

- Udalak bere erakunde autonomoen ekintzen gain egin beharreko kontrol eta tutoretza behar bezala bermatzeko prozedurak taxutzea.

V.2.2 Inbentarioa-lbilgetua

- Udal ondasunak eskriturretan jaso eta erregistratzeko prozesua osatzea, eta udal inbentarioaren etengabeko gaurkotzea eta hura kontabilitatearekin konektatua egotea lortzeko prozedurak taxutu eta aplikatzea.

- Ibilgetuko dokumentazioa artxibatze eta altak nahiz bajak kontabilizatzeko prozedurak definitu eta ezartzea, kontu horiei aplikatzekoak diren kontabilitate-irizpideei jarraituz. Ibilgetua osatzen duten kontabilitate-saldoak aztertu eta garbitzea, Udalaren ondasunak ongi isla ditzaten.

V.2.3. Langileak

- Plantilla langileriaren arloko beharri zehatzak egokitzea ote dagoen jakiteko azterlan bat egitea, plantillaren arrazionaltasuna, lanpostu bakoitzeko lan-zama eta kasu bakoitzeko ordainsari-mailak eta gastu sozialak aztertzea.

- Langileria departamentu bat eratzeko aukera aztertzea. Departamentu hori arloari dagozkion eginkizunen kudeaketaz –besteak beste, nominak egiteaz– arduratuko litzateke, egun kanpoko sozietate baten esku baitaude.

- Nominak egiteko barneko edo kanpoko sistema erabiltzen den alde batera utzita, behar diren egiaztapenak egiteko eta barne koherentzia segurtatzeko tresnak erabiliz nominak egokiak direla bermatzeko prozeduraren bat diseinatzea.

- Langileen absentismoari buruzko zenbakizko informazioa prestatzea.

- Aztertu ea Obra Departamentuari esleituriko giza baliabideak nahikoak ote diren gaur egungo lan-zamari aurre egiteko.

V.2.4. Tributu bidezko dirusarrerak, tasak eta prezio publikoak

- Prozedurak taxutu eta sistematikoki aplikatzea dirusarreraren kudeaketako datuak egiaztatzea ahal izateko, eta datu horiek beren kontabilitate-erregistroekin eta diru-bilketakoekin bat etorraz eta alderatzea, horrela kontabilitate- eta aurrekontu-informazioaren segurtasun eta fidagarritasun handiagoa lortzeko.

- *Tasa eta prezio publikoekin ordaintzen diren kostuei buruzko azterketak aldizka egitea.*

V.2.5. Alderdi orokorrak

- *Gastuak eta dirusarrerak epigrafe egokien barrenean kontabilizatzea, eta sortzapenaren printzipioa behar bezala aplikatzea.*

- *Gastuak eta dirusarrerak beren izaera ekonomikoaren arabera egotzi behar zaizkio aurrekontuari.*

- *Aurrekontu-aldaketen espedientei dagokienez, legediak ezarritako baldintza guztiak betetzea.*

V.3. HIRIGINTZA

2003ko martxoaren 28an hartu zuen indarra Lurraldearen antolamendu eta hirigintzari buruzko Foru Lege berriak, abenduaren 20koak, zeinaren bidez ordeztu baita uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legea. Udalak, 2005eko ekainaren 1eko Osoko Bilkurak hartutako erabakiaren bitartez, udal plana onesteko tramiteak hasi zituen. Erabakia 2005eko uztailaren 6ko 80. NAO-n eman zen argitara, eta Nafarroako Gobernuari bidali zitzaion, hark onetsi zezan.

Udalak aurkeztutako oroitidazkiaren 8.IV. atalean ekitaldian hirigintza arloan egin diren jarduketak zehazten dira.

V.4. BURLATAKO UDAL HIRIGINTZA SOZIE-TATEA, S.L.

2005eko irailaren 7an egindako Osoko Bilkuran, Burlatako Udalak sozietate publiko bat eratze-ko administrazio-espedientea onetsi zuen; sozietate horren helburua da udalaren jardueran ahalik eta eraginkortasun handiena lortzea zaharbertze-za sustatzeko, etxebizitzak eta bestelako eraikinak sustatzeko, lurzorua urbanizatzeko, hirigune degradatuak suspertzeko eta, ondorioz, orube eraikigarrien eta eginen diren eraikinen prezioak –salmentakoak nahiz alokairukoak– jaisteko.

Kapital soziala 1,8 milioi eurokoa da, 180 partaidetzatan banatua; partaidetza bakoitzaren balio nominala 10.000 eurokoa da, eta diru hori guztia Burlatako Udalak ordaindu du zenbateko horretan baloratutako lursail bat emanez.

2005eko ekitaldian sozietate berri horrek ez du jardunik izan.

Francisco Javier Sesma Masa auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonia *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 45,15 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,18 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,34 »	